

ESKORIATZAN KIROL ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKOEN, JURIDIKOEN ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA.

I. TITULUUA

KONTRATUARI BURUZ ORO HAR

1- ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek zerbitzutarako administrazio kontratu izaera du eta baldintza agiri honek eta honekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Bertan zehazten ez den guztirako honako hauek arautuko dute kontratua:

- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari aurka egiten ez dion guztian.
- Eta, hala beharko balitz, administrazio publikoetako kontratazioari aplikagarri zaizkion gainerako arauak.

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

2.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratu honen helburua da Eskoriatzako udal kirol instalazioetan hainbat zerbitzu ematea. Kontratuaren helburu diren zerbitzuek bete beharko dituzten gutxienezko baldintzak baldintza-agiri honetan zehaztutakoak izango dira.

Eman beharreko zerbitzuak honako hauek dira:

1. MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIAN salbamendu eta sorospen zerbitzuak ematea, eta, bertan, horri erantsitako orubean eta saunetan jendeak jarrera egokia izan dezan zaintzea eta kontrolatzea.
2. Udalak eskatutako ur jarduera eta ikastaroak, gimnasioko jarduera fisikoak eta fitness zerbitzuak ematea. Egun ematen den jarduera programa administrazio baldintza agiriko I. eranskinean jasotzen da. Programa hori eskaintzaren arabera aldatu ahal izango du Udalak.
3. Atezaintza zerbitzua ematea baldintza agiri honetako 8.4 baldintzan zehaztutako egun eta orduetan.
4. Udal pilotalekua ixteko zerbitzua ematea Manuel Muñoz kiroldegiko atezaintza zerbitzuarekin bat datorrenean.
5. Udalak horrela eskatuta beste kirol jarduera batzuk eskaintzea.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Lehiaketarako aurrekontu tipoa zerbitzu ordu bakoitzagatik, jaitziaz hobetu daitekeena, honako hau da:

1. Sorospen zerbitzua. Lehiaketako tipoa honakoa izango da: 21,15 €/orduko (+ BEZaren % 21).

2. Atezaintza zerbitzua. Lehiaketako tipoa honakoa izango da: 21,15 €/orduko (+ BEZaren % 21).
3. Fitness zerbitzua. Lehiaketako tipoa honakoa izango da: 23,15 €/orduko (+ BEZaren % 21).
4. Beste jarduera edo kirol ikastaro batzuk. Lehiaketako tipoa honakoa hau izango da: 23,15 €/orduko (+ BEZaren % 21), eta % 20ko kanona Udalarentzat. Kirol jarduerengatik kobratzen diren hiruhileko kuotak baldintza agiri honetako II eranskinean zehazten dira, eta Udalak aldatu ahal izango ditu.

Lehiatzaileek egindako proposamenetan eta kopuru zehatzean eta jakinean, eta baita kontratua esleitzen denean eskaintako prezioetan, eragin guztietarako, hauek sartuta daudela ulertuko da beti: zenbait kontzeptu grabatzen duten zerga, gastu, tasa eta mota guztietako arbitrioerik dagozkien kuotak eta etekin industrialia balio erantsiaren gaineko zergarik (BEZ) gabe.

Ondoren adierazten dira, gutxi gorabehera, 2014rako aurreikusitako zerbitzu orduak:

Atezaintza zerbitzua: 796 ordu

Sorospen zerbitzua: 3363,25 ordu

Fitness zerbitzua: 6 ordu astean, 262 ordu urtean.

Gutxi gorabehera ere, jarraian adierazten da 2014. urtean beste jarduera batzuenengatik edo kirol ikastaroengatik fakturaztea aurreikusita dagoen kopurua: 44.389,02 €. (8.877,80 € udalarentzat eta 35.511,21 € esleipendunarentzat)

Ez da inolaz ere bermatzen aurreko puntuan aipatutako ordu guztiak emango direnik, eta ezta bermatzen ere aurreikusitako fakturazioa. Aurreikusitakoa baino gehiago edo gutxiago izan daiteke, eta horrek ez du inolako eraginik izango kontratuan.

4.- FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar besteko finantzazioa dago gaur egun ekitaldi honetako aurrekontuaren kargura. Halaber, aurrekontu gaitan eskumena duen organoak dagozkion kredituak gordeko ditu eragina izango duten hurrengo urteetako aurrekontuetan.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita, eta urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez ere beste bi urtez (hasierako epea eta luzapenak kontatuta gehienez ere 4 urte), betiere, alde bietan aurrez berariaz horrela erabakitzen baldin badute epe bakoitza amaitu baino lehen.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Esleipen prezioa aurreko urte naturaleko Kontsumorako Prezioen Indizearen %85aren arabera eguneratuko da kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita, lehen urtean izan ezik, urte horretan ez delako preziorik berraztertuko. Lehiaketa tipoa bildutako diruaren portzentaje bat den zerbitzuetan prezio publikoak aldatuta eguneratuko da prezioa.

7.- ORDAINTZEKO ERA

Atezaintza, sorospen eta fitness zerbitzuak hiruhilero ordainduko dira. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du (egindako lanak zehaztuz). Faktura horrek kirol zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko du. Fakturarekin batera, ezinbestean, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Langileak izanez gero, beraien soldata ordaindu izana egiaztatzeko dokumentuak, aurreko hileko TC-ak eta Gizarte Segurantzaren dagozkion ordainketak egin izana egiaztatzeko dokumentuak.
- Autonomia izanez gero, Gizarte Segurantzari kuota ordaindu izana egiaztatzeko dokumentua.

Gainerako zerbitzuak kirol jardueren hiruhilekoari hasiera ematen zaion bakoitzean ordainduko dira, hiru hiletan banatuta jarduera horiek hasi direla justifikatu ondoren. Hiruhileko jarduera horien ordainketa

jarduerak hasi eta hilabetera egingo da, horrela, esleipenduna jardueraren hasierarekiko hilabetezko atzerapenarekin hasiko da kobratzen jarduera horiek eta beste bi hilabetez kobratuko ditu.

Faktura onartu ondoren, eta faktura udal kontuhartzaitzaren bulegoan erregistratzen denetik kontatzen hasita, gehienez ere, 30 egun barru ordainduko du Udalak.

Faktura horietatik, eta aurrez kontratistari entzun ondoren, kontratazioaren gaia den zerbitzuak ez emateagatik edo osorik ez emateagatik edo izandako zigorreatatik kendu beharreko kopuruak kenduko dira.

8.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8.1.- BETEBEHAR OROKORRAK.

- a) Zerbitzuak ematea kontratuan ezarritako denboran. Zerbitzuak baldintza agiri honen arabera eta kontratua interpretatzeko Administrazioak enpresari emandako jarraibideen arabera eman beharko dira. Kontratua ezingo zaio hirugarren bati laga, ez osorik ez zati batean, Udalak berariaz horretarako baimenik eman gabe.
- b) Kontratista behartuta dago gutxienez zerbitzua ematen duten pertsonen 2010-2012rako Gipuzkoako Titularitate Publikoko Kirol-instalazioetarako Hitzarmen Kolektiboa aplikatzera, edo hitzarmen hori ordezkatzeko duena, kontratuak indarrean dirauen bitartean.
- c) Behin betiko bermea horretarako ezarritako epean jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.
- d) Kontratua formalizatzea baldintza agiri honetan ezarritako epean.
- e) Izan daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak 15 eguneko epean jakinaraztea Udalari.
- f) Arduradun-koordinatzaile bat izendatzea Udalarekin solaskide zuzena izateko. Solaskide horrek baldintza agiri honetako 8.2 baldintzan eskatzen den hizkuntz prestakuntza izan beharko du, internet eta ofimatika ezagutza aurreratuak, eta gutxienez 2 urteko esperientzia taldeen kudeaketan.
- g) Lan araudiko, Gizarte Segurantzako eta 31/1995 Legeko (Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea) eta hori garatzen duten errege dekretuetako xedapenak betetzea eta baita zerga arlokoak ere, horiek ez betetzeagatik egon daitezkeen erantzukizunetatik erabat libre geldituz Udala.
- h) Udal kirol zerbitzuak ezarritako koordinazio bileretara joatea, koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez. Batzuetan, koordinazio bilera horietan, ezinbestean, sorospen eta atezaintza langileek eta kirol monitoreek parte hartu beharko dute; beraz, kasu horietan, Udalak horrela erabakitakoan, derrigorrezkoa izango da langile horiek bertan egotea.
- i) Zerbitzuak emateko beharrezko langileak kontratatzea. Kontratutako langileei dagokionez, kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira, eta baita Gizarte Segurantzari alta eman izana egiaztatzeko dokumentuak ere, gehienez ere 10 eguneko epean kontratazio egunetik kontatzen hasita.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko ditu gaur egun zerbitzua ematen duten langileak, eta subrogatuta geldituko da aurreko esleipendunek lan arloan zituzten eskubide eta betebeharrak dagokienean (langileen zerrendari, kontratuei eta abarrei buruzko informazioa Kirol zerbitzuan eskuratu daiteke). III eranskinean langileen zerrenda jasotzen da.

Langile horien arduradun bakarra esleipenduna izango da, berak izango baititu nagusiaren eskubide eta betebeharrak guztiak, eta bere menpeko langileekin lan arloan, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higie arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.

Langileren batek lanean edozein motatako istripu edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta Udalak ez du horretan inolako erantzukizunik izango. Hori guztiori bermatzeko, gutxienez 100.000 eurorengatik aseguratuko beharko du erantzukizun zibileko polizan sartuta egon beharko den "erantzukizun patronala" izeneko arriskua.

Udalak edozein momentutan eska diezaiolke betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzea.

Kontratua amaitu ondoren, Udala ez da esleipendunak kontratatutako edo berarentzako lanean dabilen langileen kargu egingo.

- j) Zerbitzu hauek eskaintzerakoan udalari edo hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea. Horretarako, sor litezkeen edo zerbitzua eskaintzeak ekar ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez, 300.000 euroko kapitalaz.
- k) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- l) Jarduerak udal kirol zerbitzuak ezarritako egun eta orduetan ematea (baldintza agiri honetako IV. eranskinean zehazten dira), kontuan izanik ordu horiek gutxi gorabeherakoak direla 2014rako eta, Udalak horrela eskatuta, aldatu ahal izango direla. Hurrengo urteetako ordutegiak eta egutegiak aurreko urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.
- m) Jarduerak antolatzeko udal kirol zerbitzuaren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoak exekutatu, zerrendak irakurri, ziurtagiriak ikasleen artean banatzea, mailaz mailako erregistroa eraman eta jardueren egitasmoan zehaztu daitezkeenak). Horretarako, bai enpresak eta baita bertako langileek ere, datu pertsonalen babeserako legeak zehaztutakoa beteko dute.
- n) Monitoreen bitartez, ikastaroa emateko behar den diziplina mantentzea, ikasleak eta beste erabiltzaile batzuk gogaitu barik, eta bertako arauak bete eta betearaztea.
- o) Erabili behar den materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta jasotzea, ikastaroak garaiz emateko. Horrekin batera kirol esparruak zabaltzeaz eta ixteaz ere arduratuko dira.
- p) Langileen arteko, enpresa eta langileen arteko eta enpresaren eta Udalaren arteko harremanak jaso eta bilduko dituen egitasmoa aurkeztu eta betetzea. Bertan, enpresako eragileen arteko barne koordinazio eta kontrolaren berri emango da. Horretarako, pertsona bakoitza eta bere funtzioak definituko dira.
- q) Ebakuazio planean jasotako betebeharretan parte hartzea, Udalak adierazitakoari jarraituz.
- r) Kontraturiko zerbitzuak ikuskapen eta zaintzapean egongo dira etengabe, eta esleipendunak, kirol zerbitzuko arduradunek horrela eskatutakoan, egindako lanen eta zerbitzuko gorabeherari buruzko txostena aurkeztu beharko du, eta betebeharrak hori betetzeko beharrezko izan daitezkeen agiri guztiak aurkeztera derrigorritu dago, bereziki, enpresa jardueren koordinazioari eta lan segurantzari buruzkoak, guztia ere, Udalaren edozein erantzukizun subsidiario kentzeko helburuarekin. Kirol zerbitzuko arduradunek zerbitzua emango duen enpresarekin harreman errazak izan behar ditu, kontratuari dagozkion datu, xehetasun eta gorabehera garrantzitsuenen berri ahalik eta modurik eraginkorrenean izateko. Horretarako, esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:
 - Kontratuko zerbitzu guztiei buruzko txosten eta azterlanak prestatu, zerbitzuaren arduradunek horrela agindutakoan.
 - Zerrenda bat aurkeztu zerbitzua emango duten langile guztien izen-abizenekin.
 - Egindako ordezkapenen zerrenda aurkeztu hileroko.
 - Komunikazio-diagrama bat aurkeztu; bertan, zerbitzuaren arduradunarekin eta enpresarekin komunikatuko diren pertsonak agertu beharko dira, pertsona horietako bakoitzaren eginkizunak eta informazioaren kudeaketa egokirako erabiliko diren komunikazio kanalak zeintzuk izango diren zehaztuz. Enpresak, bere komunikazio planean jaso beharko du kontratu orduetan, derrigorrez, arduradun bat beti egongo dela aurkitzeko moduan gerta daitezkeen ezusteak konpontzeko. Arduradun horrekiko harremana telefono mugikor baten eta posta elektronikoko helbide baten bidez egingo da.
 - Zerbitzuari buruzko txostena aurkeztu hiruhileroko. Txosten hori hiruhilekoa amaitu eta hurrengo hamabost egunetan aurkeztu beharko da. Bertan, eduki hauek jasoko dira:

1. SOROSLEAK:

- Sorosle kopuruari buruzko informazio orokorra.
- Sortutako gorabeherak eta hartutako konponbideak.
- Ordezkapenak.

2. GORABEHERAK:

- Osasun arreta jarduerak.
- Diziplina arloko gorabeherak.
- Kirol gorabeherak (igerilekuaren erabileraz eta okupazioaz).
- Instalazioarekin lotutakoak (mantentze-lanak, espazioak eta materialak).

3. KOMUNIKAZIOA:

- Agenteen arteko harremanen balorazioa.
- Edukiak, gorabeherak eta hartutako konponbideak edo erabakiak.

8.2. HIZKUNTZ BETEBEHARRAK.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta 2011ko irailaren 21eko osoko Bilkuran onartutako "2011-2015 agintaldirako Eskoriatzako Udalaren Hizkuntza Politika" dokumentuan.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, **zerbitzu hizkuntzak** euskara eta gaztelania izango dira, eta kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horregatik, zerbitzua ematerakoan hizkuntza biak erabiliko dira ahozko zein idatzizko komunikazioetarako, lehenasuna euskarari emanez. Edonola ere, zerbitzu-hartzaileak 16 urtetik beherako haur eta gazteak badira, horiei zerbitzu osoa euskaraz bakarrik eskainiko zaie.

Langileek hizkuntz gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik,

- zerbitzuaren kudeaketa eta koordinazioaz arduratuko den langileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGArekin parekoa) egiaztatu beharko du, eta.
- sorosle, kirol monitore, kontserje eta erabiltzaileekin harreman zuzena izango duten gainontzeko langile guztiek, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatze honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonen eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

Hizkuntza ofizialen erabilera kirol jarduera taldeetan:

Jarduera taldeetan egon daitezkeen hizkuntza egoerak egoki kudeatu ahal izateko, hiru hizkuntza egoeren arabera funtzionatuko da:

1. Ikastaroko partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera hori euskara hutsean egingo da.
2. Ikastaroko partaideen erdiek baino gehiagok euskara ulertzen dutenean, jarduera hori nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, monitoreak laburpenak egingo ditu erdaraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.

3. Ikastaroko partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen dutenean euskara, jarduera hori nagusiki erdaraz egingo da, eta monitoreak euskaraz esango ditu agurrak, zenbakiak, animo hitzak eta antzekoak. Gainera, euskaraz egingo die euskara ulertzen dutenei.

Irizpide horiek erabili ahal izateko, ikastaroetarako izena emateko orrietan bakoitzaren euskara mailari buruzko galdera egingo da.

Hizkuntz erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira. Eta, horregatik,

- Erabiltzaileari berak aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaio.
- Jarduera taldeetan ahoz erabili beharreko hizkuntza aurreko atalean zehaztutako tipologiaen arabera egingo da.
- Udaleko kirol zerbitzuaren eta enpresa esleipendunaren artean idatzitako errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskarari lehentasuna emango zaio. Horretarako, eta ahal denean, piktogramak jarriko dira euskarazko mezuari laguntzeko. Piktogramak erabilia ere mezua behar beste argia izango ez balitz, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.
- Idatzizko jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, abisuak, ordutegiak, ordainagiriak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Hizkuntza erabilera administrazioarekin:

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, memoria, bilera...) euskaraz izango dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen **jarraipena**, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

8.3. SOROSLE ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK.

- a) Sorosle funtzioak eta Eusko Jaurlaritzako otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua garatzen duen erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitariotik eratorritako arau guztiak betetzea eta betearaztea. Araudi horren osagarri, Manuel Muñoz kiroldegian ezarrita dagoen autokontrol plana ere bete beharko da.
- b) Igerilekuan eta horri lotutako guneetan beharrezko prebentzio neurriak hartzea eta bertan egon daitezkeen erabiltzaileak zaintzea.
- c) Larrialdietarako beharrezko osasun baliabideak erabiltzen jakitea eta prest eta eguneratuta izatea: uneoro prest izatea oxigenoterapia, desfibriladore automatikoa eta botikina. Gainera, sorospen lanak prestatu beharko ditu eta eguneratuta izan.
- d) Udal Kirol Zerbitzuak gune horretarako ezarritako arauak ezagutzea, horiek betetzea, erabiltzaileei jakinaraztea, irakastea eta betearaztea.
- e) Ondorengo jarduerak egitea:
 1. Ur azpiko robota sartzeari igerilekuetan esango zaion maiztasunarekin.
 2. Igerilekuko instalazioetan sorosle eta zaintza lanak egitea bermatuko duten argitasun baldintzak izateko beharrezko argiak piztu eta itzaltzea.
 3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zehaztutako gune hezeetan (aldagelak, aldageletarako korridoreetan eta nasetan) beharrezko garbitasun lanak egitea, betiere, lan horiek txikiak eta arinak baldin badira. Garbitasun handiagoa egin behar izanez gero, aldagelak itxiko dira, gunea mugatuko da edota garbitasunaz arduratzen den pertsonari deituko zaio (une horretan bertan egongo balitz).

4. Igerileku handiko edo txikiko osasun parametroak arriskuan jarriko lituzkeen gorabeheraren bat izanez gero (oka, kaka eta abar) sorosleak indarrean dagoen protokoloa jarriko du martxan.
5. Kokapenari dagokionez, erraz ikusteko moduan egon beharko da beti eta ikusarazi egingo da, eta era berean, esparrua eta erabiltzaile guztiak kontrolatzeko moduan izango da. Bera izango da igerilekua dagoen esparruan sartuko den lehena eta irtengo den azkena. Irteten aurretik esparrua ikuskatuko du eta bertan erabiltzailerik ez dagoela ziurtatuko du. Era berean, bere lanorduetan ezingo du igerilekua dagoen esparrutik alde egin.
6. Sorosleak ezingo du telefonoa helburu partikularretarako erabili eta ezingo ditu tableta elektronikoak, ordenagailu pertsonalak eta abar erabili. Modu berean, ezingo du egunkaria edo aldizkariak irakurri eta ezta ere gurutzegramak edo arreta galaraziko duen beste jarduerarik egin.
7. Igerilekuak erabiltzeko araudia beteko du eta betetzen dela zainduko du, baita osasun-kontrolaren plana ere.
8. Txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan, jaialdietan... indarrean dagoen araudia eta barne arauak betearaziko ditu.
9. Salbamendu eta sorospen lanetan bera denez agintari gorena, zerbitzua eten eta erabiltzaileak esparrutik atera ahal izango ditu; ahalmena izango du horretarako.
10. Pertsonaren bat artatu behar duenean, botikinera joan edo antzeko beste zerbait egin, eta esparruan lankideren bat baldin badago, laguntza eskatuko dio esparrua zaintzen geratzeko.
11. Lanpostuan txanda hartu behar izanez gero, ezingo du lanlekutik alde egin lankidea etorri eta bere eginbeharrak egiteko prest egon arte eta egon daitezkeen berriak jakinarazi arte.
12. Teknikariei lagunduko die une zehatzetan: ikasleen joan-etorriak, materiala eta abar.
13. Igerilekuaren autokontrol planean jasotakoaren arabera, adierazgarria izan daitekeen edozein gorabehera jaso eta jakinaraziko du.
14. Esparruan dauden argi beharren berri eman beharko dio mantentze-lan zerbitzuari, eta behartuta dago energiaren kontsumo iraunkorra zaintzera, eta beharrezkoa balitz, argiak, berogailua eta abar itzaltzeko eska dezake. Erabiltzaileen ur kontsumoak ere zainduko ditu, eta dutxetan zein iturrietan kontsumo horiek egokiak izan daitezen zainduko du.
15. Zerbitzuan eragina izan dezakeen edozein gorabehera, iradokizun edo hobekuntzaren berri eman beharko die bere arduradunei.
16. Lanlekuan erabiliko duen arropa egokia eta bere eginbeharra egiteko adierazgarria izango da (bainujantzia, kamiseta eta oinetakoak). Ezingo da kaleko arroparekin sartu igerilekua dagoen esparrura eta bertan aldatu.
17. Instalazioak zuzen erabili daitezen eta prebentzio lan gisa, sorosleak instalazioen erabilerari, igerilekua erabiltzeko arauari eta helburu horietarako interesagarri izan daitezkeen gauza guztiei buruzko informazioa emango die erabiltzaileei. Enpresa esleipendunak igerilekuko kalean okupazioari buruzko seinaleztapena eguneratuta izateko beharra hartzen du bere gain. Horretarako, horren berri emateko kartelak jarri eta aldatuko ditu eta igerilekuko esparruan jarri daitezkeen okupazio panelak beteko ditu. Era berean, igerilekuko erabileraren kontrolari eta okupazioari buruzko kartel informatiboak eta gainerako seinaleak jarriko ditu, eta eguneratuta eduki. Horretarako, zerbitzuak zuzen funtzionatzeko beharrezko kartelak egiteko eskatuko dio kirol instalazioen arduradunari.
18. Kontrol alorra.
 - Igerileku bakoitzean eta horietako egonleketan zenbat pertsona dauden kontrolatuko du, ezarritako gehienezko pertsona kopurua gainditu ez dadin. Edukiera horiek edukiera kontrolatzeko fitxetan jasoko dira.

- Udal kirol zerbitzuko arduradunek esandako maiztasunarekin eta etengabe baloratu, zaindu eta erregulatuko ditu oinarritzko parametro hauek: tenperatura, Ph-a, kloroa, uraren tenperatura, giroan dagoen hezetasuna, uraren uhertasuna eta maila; eta arazo teknikorik antzeman ez gero, berehala jakinaraziko die instalazioen mantentze-lanen arduradunei.
- Igerilekuetan zein alboko esparruetan izandako edozein gorabeheren berri emango du.
- Bere zerbitzurako materiala zainduko du eta erabiltzaileek material hori nola erabiltzen duten kontrolatuko du.
- Monitoreek, kirol teknikariek eta erabiltzaileek materiala leku eta modu egokian lagatzen dutela eta zuzen erabiltzen dutela kontrolatuko du.
- Erabiltzailea bakoitzak bere materiala (eskuzorroak, hegatsak, arnasa hartzeko tutuak) sartzeko baimena egoera puntualetan emango da eta soroslearen irizpidearen arabera, bera baita beti igerilekuaren erabilpen ona zaindu behar duena.
- Ezingo da kaleko arroparekin, oinetakoekin, poltsekin eta abar sartu. Instalaziora sartzen diren taldeak adin nagusiko arduradun batekin egon beharko dira esparruan, eta izendatutako espazioa erabili beharko dute jarritako ordutegian.
- Kaleen erabilera arautuko du honakoak kontuan izanda: igerilekuko barne-araudia, igeriketa saioak egiteko monitoreek izan ditzaketen beharrak eta erabilpen ona eta espazioaren aprobetxamendu ona lortzeko monitoreen iritzia.
- Botikinekoko materiala zaindu eta eguneratuko du iraungitako produkturik egon ez dadin eta beharrezko materialik falta ez dadin.

19. Zaintza alorra.

- Arreta berezia eskainiko die arrisku handiagoa duten ikastaroei: hastapenekoei, haurrenei, behar bereziak dituzten helduenei, 3. adinekoenei...
- Arreta berezia jarriko du jendea oinutsik ibili ez dadin edo ur barruan nahiz kanpoan pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen lasterketak egin ez daitezkeen.
- Orokorrean, beste erabiltzaileen edo soroslearen beraren segurtasuna arriskuan jar dezaketen eta materialean kalteak eragin dezaketen jarduerarik (erorketa desegokiko jauziak, taldeka egindako jauziak, behin eta berriz jauzi egitea, bultzadak eta abar) egin ez dadin zainduko du.

20. Osasun zaintza.

- Barruko zein kanpoko igerilekuko esparruan, sauna gunean eta kiroldegian gerta daitezkeen gorabehera guztiak artatuko ditu, eta izandako gorabehera, istripu eta salbamendu guztien parteak beteko ditu.
- Gorabeheraren bat, istripuren bat, hutsegiteren bat izanez gero, jarduketa protokoloa bete eta horretaz arduratuko da. Gertaeraren berri jaso beharko du: ordua, pertsonaren datuak eta gertaera nola izan den zehaztuz.

21. Enpresa esleipendunak sorosle berriren bat kontratatu beharko balu, lanean hasi aurretik aldaketaren berri eman beharko zaie, idatziz, kirol instalazioen arduradunei.

22. Salbamendu eta sorospen zerbitzua Manuel Muñoz kiroldegiko instalazioak irekitzen diren egun guztietan eman beharko da, instalazioak irekitzen direnetik itxiera ordua baino 20 minutu lehenagora arte. Ordutegia aldatu ahal izango da Udalak horrela eskatuz gero.

8.4.- ATEZAINZA ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK.

- **PILOTALEKUARENA:** Zerbitzu horretan sartzeko da eraikina irekitzea eta ixtea Udalak ezarritako ordutegian.
- **KIROLDEGIARENA:** Zerbitzu horretan honako hauek sartzeko dira:
 - Kiroldegiko esparrua eta instalazioa zaintzea.
 - Kirol instalazioak ezarritako helburuetarako erabili daitezkeen beharrezko lanak egitea. Lan horietan sartzeko dira instalazioak mantentze eta funtzionamendu egoera onean izatea eta horretarako beharrezko baliabideak jartzea. Berezi aipatu beharrezkoak dira, besteak beste, aldagelen, korridoreen eta lehenengo solairuko atartearen garbitasuna, kantxa egunero garbitzea eta

igerilekuko instalazioen eta makineriaren funtzionamendu zuzena kontrolatzea. Egin beharreko mantentze-lanak Udalak finkatuko ditu mantentze-lanei buruzko programa-plan batean.

- Erabiltzaileek -bazkideek edo ez direnek- instalazioak erabiltzeagatik, kirol jarduerak egiteagatik edo beraien esku jarritako zerbitzuak libre erabiltzeagatik ordaindu beharreko kopuruak kobratzea, eta baita ez ohiko kirol jarduerengatik edo bestelako jarduerengatik egin beharreko kobrantzak egitea ere.
- Instalazioak ireki eta ixtea.
- Udalak agindutako antzeko beste lan batzuk egitea.

Zerbitzua ohiko eta ez ohiko izaeraz emango da ondoren azalduko den moduan, kontuan izanik biak ala biak ere aldatu ahal izango direla Udalak horrela eskatuta.

- OHIKO izaera: larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandetan, 10:00etatik 14:00etara. Atezaina instalazioa ireki baino ordu bete lehenago sartu beharko da, eta instalazioa itxi ondoren, ordu bete beranduago irten.
- EZ OHIKO izaera: Udalak ezin dituen zerbitzuko funtzioak bete bajengatik, baimenengatik edo lizentziengatik; langile finkoen ordezkapenak egin behar direnean udal plantillako atezainen batek oporrak hartutakoan edo kirol instalazioetan ikusleentzako jarduerak egiten direnean eta Udalak horrela eskatu 7 egun lehenago.

Era berean, izan daiteke Udalak berak bete ahal izatea asteburu edo larunbat batzuk herri intereseko arrazoi justifikatuengatik.

Lan horiek zerbitzu horretara atxikitako udal langileen lan eta funtzioekin koordinatuta egin beharko dira. Esleipendunak Udalari jakinarazi beharko dizkio antzematen duen edozein arazo, arazo horrek zerbitzua emateko eragina izan badezake edo bere langileen eta Udaleko langileen funtzioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa eragoz badezake.

8.5.- UR JARDUERAK ETA IKASTAROAK, GIMNASIOKO JARDUERA FISIKOAK ETA FITNESS ZERBITZUEN BETEBEHARRAK.

- a) Zerbitzua edo saioak udal kirol zerbitzuak ezarritako ordu eta egunetan ematea.
- b) Ikastaroak edo fitness zerbitzua antolatzeke udal kirol zerbitzuarekin batera aritzea (martxan dauden planak burutzea, zerrendak irakurtzea, ziuertagiriak banatzea ikasleei, errolda bat eramatea, Udalak ezarritako helburu eta kirol edukiak eta abar). Kirol jarduera bakoitzean kobratu beharreko tarifak jartzeko arduraduna udal kirol zerbitzua da. Salbuespena fitnessa izango da, jarduera hori ezarritako prezioa batean aterako da lehiaketara eta instalazioetarako bazkidetzaren barne egongo da.

Fitness zerbitzua emateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Fitness tresnak erabiltzen erakustea.
2. Fitness aretoko erabiltzaileen eskariz oinarritako entrenamendua prestatzea monitoreari emango zaion ereduaren arabera. Ez dira entrenamendu pertsonalizatuak prestatuko.
3. Instalazioak kontu handiz erabiltzen direla zaintzea.
4. Makinei alde aurretiko mantentze-lanak egitea, eta horietakoren bat hondatu edo matxuratu gero, instalazioen mantentze-lanen arduradunari jakinaraztea.
5. Beharrezko laguntza teknikoa eskaintzea erabiltzaileei, denak berdin tratatuz, eta pertsonen zein gauzei edozein kalte ekiditeko beharrezko segurtasun neurriak hartuz.
6. Instalazioetan, erabiltzaileak behartzea portaera egokia izatera eta beharrezko elkarbizitza eta higieina arauak betetzera.
7. Erregelamenduzko txosten edo komunikazioak egitea.
8. Zerbitzuaren barruan egin beharreko gainerako lanak.

- c) Ur jarduerak irakastea sorosle eta igerilekuko zaintza lanekin batera egin ahal izango da.

9.- ZERBITZUETAKO LANGILEEN TITULAZIOA.

Enpresa esleipenduneko langile guztiek bete beharko dituzte baldintza agiri honetako 8.2 baldintzan ezarritako hizkuntz eskakizunak, eta baita ondoren adieraziko diren baldintzak ere:

ATEZAINZA ZERBITZUA:

Eskola-graduatu edo DBH titulua izatea, eta baita lehen sorospen ezagutzak ere; jendeari harrera egiteko antzeko lanetan esperientzia egiaztatzea, eta ofimatikako eta interneteko oinarrizko ezagutzak izatea.

SOROSPEN ZERBITZUA: Sorosleek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak igerilekuetarako onartutako sorospen titulazioa eta prestakuntza izan beharko dute, bi urtero edo une bakoitzean indarrean dagoen legediak eskatzen duen aldiro eguneratua. Bestalde, etengabe garatzen ari den gaia izanik, ezagutzak handitu beharko dira, metodo eta teknologia berriak ezagutu (DEA...) eta teknikariak prestatu zentzu horretan.

UR JARDUERA ETA IKASTAROAK: Zerbitzua emango duten pertsonak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian lizentziatu titulua izan beharko dute, nahiz eta zerbitzua eman ahal izango duten ere Hezkuntza Fisikoko Diplomatura titulua dutenek. Salbuespen gisa, eta bakar-bakarrik baldintza agiri honetako 8.1 baldintzan aurreikusten den langileak subrogatzeko derrigorra dagoenean, zerbitzua eman ahal izango dute aurretik aipatutako titulazioa ez dutenek, baina igeriketa monitore agiria izan eta zerbitzu horiek baldintza agiri hau onartu baino lehen eman dituztenek.

GIMNASIOKO JARDUERAK: Zerbitzua emango duten pertsonak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian lizentziatu titulua izan beharko dute, nahiz eta zerbitzua eman ahal izango duten ere Hezkuntza Fisikoko Diplomatura titulua dutenek. Salbuespen gisa, eta bakar-bakarrik baldintza agiri honetako 8.1 baldintzan aurreikusten den langileak subrogatzeko derrigorra dagoenean, zerbitzua eman ahal izango dute aurretik aipatutako titulazioa ez dutenek, baina igeriketa monitore agiria izan eta zerbitzu horiek baldintza agiri hau onartu baino lehen eman dituztenak.

FITNESS ZERBITZUA: Zerbitzua emango duten pertsonak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian lizentziatu titulua izan beharko dute, nahiz eta zerbitzua eman ahal izango duten ere Hezkuntza Fisikoko Diplomatura titulua dutenek.

10.- ESKORIATZAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Udalari dagokio, bere teknikarien bidez, kontratua ikuskatzea; eta kontratua behar bezala betetzeko jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari kontratuaren baldintzetan oinarrituz eta kontuan izanik Alkateak izango dituela kontratua zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta hori garatzen duen araudian ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari honako hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.
2. Kontratuaren esleipendunari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Udalak.
3. Eskoriatzako Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kirol jardueretarako egokitutako lokalak.
4. Eskoriatzako Udalaren kontu izango dira esleipendunaren esku jarritako instalazioetako garbitasun eta argindar gastuak.
5. Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.
6. Eskoriatzako Udalari egotzitako arrazoiengatik –instalazioetan egin beharreko obrak edo beste edozein- zerbitzuak aldi baterako eten behar baldin badira, enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasoko Udalaren aldetik. Gorabehera horien berri 7 eguneko aurrerapenarekin eman beharko da instalazioetan egin beharreko mantentze-lanengatik eta garbitasunagatik eteten bada zerbitzua (8tik 20 egunera urtean), eta 15 egunekoarekin, instalazioak hobetzeko obrak egin behar direla-eta zerbitzua aldi baterako eteteko beharra dagoenean.

7. Udalak horrela eskatuta, zerbitzuak aldi baterako eten ahal izango dira grebarengatik edo antzeko arrazoiengatik, 24 ordu lehenago horren berri emanda, eta enpresa esleipendunak inolako kalte-ordainik jaso gabe.
8. Eskoriatzako Udalak pleru honen 8.2 atalean jasotako hizkuntza irizpideak betetzen direla egiaztatzeke jarraipena egiteke eskumena izango du.

11.- BERMEAK

Behin betikoa: hamabost egun naturaleko epean, kontratuaren behin-behineko esleipena jakinarazten zaion hurrengo egunetik kontatzen hasita, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako moduetako batean, kontratistak 300 €-ko behin betiko bermea jarri beharko du esleitutako zerbitzuetako bakoitzeko: atezaintza, sorospena, fitnessa eta kirol jarduerak.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen baldin bada, bermea ere egokitu egin beharko da aurreko atalean adierazitako epe berean, kontratuaren aldaketa jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Kontratazio-organoaren erabakiz itzuliko zaio behin betiko bermea kontratistari, berme epea bete eta kontratua behar bezala bete ostean edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazten denean.

II.TITULUA KONTRATUA ESLEITZEA

12.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 14. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

Enpresariak, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio prozesuan parte hartzeke proposamenak Udal Erregistroan aurkeztu ahal izango dira iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean, 9:00etatik 14:30era.

Proposamenak lehen adierazitako ordutegian aurkeztu beharko dira. Eskaintzak aurkezteke azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko da epea.

Postaz ere aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Hala eginez gero, hauek kreditatu behar ditu interesatuak, dagokion gordekinarekin: noiz bidali zuen hura Postetxeko bulegoan eta egun berean Kontratazio Organoari adierazi behar dio fax, telex edo telegramaz, proposamena bidali duela. Baldintza biak bete gabe ez da onartuko proposamena, iragarkian ezarritako epetik kanpo aurkeztuz gero lizitazioa.

Hala ere, adierazitako egunetik 10 egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian aurreikusitako guztia.

Aldagai edo alternatiba bat aurkeztu ahal izango da, betiere, baldintza teknikoen agirian definitutako gutxieneko prestazioak betetzen baldin baditu.

2- Hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira proposamenak, eta gutun-azal horiek ondoren zehaztuko diren dokumentuak izan beharko dituzte:

"A" gutun-azalaren azpititulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea. Notarioaren-ahalordea Udalak askietsiko du gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzerakoan.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo zinpeko aitortza edo ziurtagiria aurkeztu ezar daitezkeen Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

Atzerriko gainontzeko enpresariak jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkartza diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsulettxeko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiria aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztatzea. Egiaztatzea aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela egiaztatzen duen aitortpena aurkeztu beharko da.

e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 75. artikuluko a) letran eta 78. artikuluko b) eta e) letretan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Aipatutako bitartekoak direla-eta, kontratu honetarako enpresek bete beharreko gutxieneko kaudimen baldintzak honako hauek izango dira:

e.1.- Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzea. Ondorengo dokumenturen bat aurkeztuta egiaztatu beharko da:

- Azken hiru urteetan emandako zerbitzuen zerrenda. Egiaztagiri horietan, eman diren zerbitzuen zenbatekoak, egunak eta norentzat egin diren (kontratatzailea pribatua edo publikoa izan den) adieraziko dira; eta zerbitzu horietako garrantzitsuenak ondo burutu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.
- Enpresariaren eta enpresaren zuzendaritzako kideen eta, bereziki, kontratuaren burutzapenaren ardura dutenen titulu akademiko eta profesionalak.

e.2.- Giza baliabideak: baldintza agiri honetako 9. atalean jasotzen direnak.

Kaudimena frogatzeko, gainera, lehiatzaileek beraien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Proposamenetan, gainera, kontratua exekutatzeko arduradunen izen abizenak eta prestakuntza profesionala zehaztu beharko dira.

f) Hainbat enpresak aldi baterako enpresa-batasuna eratuz jotzen badute lehiaketara, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egitea.

h) Prozedura honetako jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa bat, SPKLTBren 151.4 artikuluan jasotakoaren eta ondorioen arabera.

"B" gutun-azalak "BALIO-JUDIZIOAREN MENPEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK" azpitulua izango du, eta balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako 16. baldintzan aipatutako dokumentuak jasoko ditu.

1. Zerbitzuaren antolaketari buruzko txostena eta eskaintza teknikoa.
 - Jarduera proposamena 2014rako.
 - Lan programa eta langileen antolaketa.
 - Udalarekin komunikatzeko plana.
 - Zerbitzuari atxikitako solaskidearen titulazioa, esperientzia eta lanaldia.
 - Zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko hartutako neurriak.
2. Zerbitzua hobetzeko proposamenak:
 - Udalak aurkeztutako jarduera programari egindako hobekuntzak.
 - Beste batzuk.

"C" gutun-azalak "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK" azpitulua izango du, eta ondorengo dokumentu hauek izan beharko ditu:

- a) V eranskinaren arabera egindako proposamen ekonomikoa.
- b) Zerbitzua emateko kalitatea egiaztatzeko ziurtagiriak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu behar ditu. Dokumentazio hori fotokopietan ere aurkeztu ahal izango da, baina, kasu horretan, sailkapenean lehenengo gelditzen denak originalak aurkeztu beharko ditu fotokopia horiek benetakoak direla frogatzeko.

14.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: IGOR EZPELETA
- Mahikideak: EDURNE ITURBE, BEÑAT HERCE eta JOSE ANGEL PETRALANDA
- Idazkaria: ARANTZA UNZUETA
- Ordezkoak:
 1. Mahaiburuarena: MAIDER LANDA
 2. Edurne Iturbe mahaikidearena: PILI BELATEGUI,
 3. Beñat Herce mahaikidearena: JOSE MARI HERCE
 4. Jose Angel Petralanda mahaikidearena: ARANTXA IREGI
 5. Idazkariarena: MAIDER ETXANIZ

15.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPENA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, ondorengo jarduerak egingo dira:

1. "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA BERTAKO DOKUMENTUAK TRATATZEA.

Mahaiak "A" gutun-azaleko dokumentazioa kalifikatuko du. Horretarako, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen eskakizunetan. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei; eta kasu honetan, eta aipatutako erregelamenduaren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiru egun baliouduneko epea izango dute akatsak zuzentzeko.

2. ENPRESAK AUKERATZEA.

Mahaiak, behin aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo ez-egiteak konpondu ondoren, baldintza agiri honen 14. baldintzan zehaztutako hautapen-irizpideekin bat egiten duten enpresak zeintzuk diren erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zeintzuk diren lehiaketarako onartu diren enpresak, zeintzuk baztertutakoak eta bazterketaren arrazoiak.

3. B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA.

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizioaren menpeko irizpideak dituen, jendaurrean irekitzeko ekitaldia kontratugilearen eskakizunetan ezarritako egun eta orduan egingo da. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezko balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun baliouduneko epea emango du horiek zuzentzeko, SPKLa zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA.

"B" gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, "C" gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldia egingo da kontratugilearen eskakizunetan ezarritako egunean eta orduan. Dokumentazio

horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere sei laneguneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpeko irizpideei emandako balorazioa.

16. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA. PROPOSAMENAK BALORATZEA.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak eta horiei emandako haztapena honako hauek izango dira:

Atal bakoitza ondorengo irizpideen arabera baloratuko da:

1. Sorosle, atezaintza, fitness eta kirol jarduera zerbitzuetarako eskaintza ekonomikoak gehienez ere 20 punturekin baloratuko dira. Zerbitzuaren orduko prezioa merkatzeak 0,5 puntu emango ditu merkatutako 5 zentimo bakoitzeko. Ezingo da 0,5 €/orduko baino gehiago merkatu eskaintako zerbitzu bakoitza (sorospena, atezaintza, fitness eta kirol jarduerak).
2. Zerbitzua hobetzeko proposamenak. Atal horretan gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango dira. Kontuan izango dira Udalak aurkeztutako jarduera programari egindako hobekuntzak eta eskaintzarako berriak izan daitezkeen programak eta proposamenak. Atal honetan bere proiektuan sar ditzakeen kirol programak adieraziko dira eta baita interesgarritzat jo ditzakeen beste edozein atal ere.
